

Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko apirilak 30 / III. urtea / 73. zenbakia

Eskulan eta lan

Gaur zabalduko ditu ateak Errenteriako Eskulangintza Azokak, Euskal Herrian mota honetako en artean nagusiak. Bertara hurbilduko dira beren trebetasuna erakustera 14 artisau nafar, zahar zein gazte, hasi berriak zein bizitza osoa horretara emandakoak. Besteak beste, Castora Agesta, Markos Saragueta, Agustin Antxordoki edo Juan Jose Etxarri artisauei, Euskal Herri

osoan famatuei, Pello Iraizotz, Antonio Osinaga edo Ezpelur Gaiteroak gehituko zaizkie, beren burua ezagutzera eman nahian dabil-tzanak. Hain zuzen ere Saragueta Mezki-rizko kuxetagleari eta Agesta Etxalar-goruleari omenaldia egingo die azokak, egunontan eskulangintzan bizitza osoa emateaz gain, espezialitatea beraiekin batera desagertu bailiteke.

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA


Joxe Azurmendiren obraren be- rri duen orok —hamazaz- pi liburu eta dozenaka artikul- uruturik baititu hor hemenka—, ederki asko daki, ongi jakin gaine- ra, haren begiak ezagutzaren aro eta gertakizun anitzetara itzuliak dauzkala; gogoko duela iturri gu- zietatik edatea, hitz batez.

Nola nahi den, badira bi garai historiko —XV. eta XVI. men- deak, hain zuzen—, tiraina haun- dikoak direla berarentzat. Eta hori hola omen da, mende kalapitatsu haietan Ernazimendua errotu bai- tzitekeen gure herrian, eta berare- kin batera, baita gure naziogintza- ren hastapen sendoa ere; eta, nola bata ez zen gertatu, eta ondorioz, bestea ere ez, aztertzeari ekin dio zergatik ez zen posiblerik izan; emaitza liburu batean argitara emanda. Eta halafedea, argi azter- tu eta asmatu duela!

Nonbaiteko herri urrunetik omen gatoz, ezbaikoa da gure egu- nekoa, noruntza goazen, klarki ez dakigula... (Ez ote datza horretan gure sena-edo-gogoa. Ados?). Dakiguna da, ordea, eraiki gabeko herri bat dela gurea, hamaika pux- ketatan menpe-eratuak, eta puxka horiek nola bildu nazio bat bete- tzeke... ba, honetaz ere mintzo zaigu Zegamarra, bere luma zorro- tzez eta bere burua jakinduriaz on- do horniturik. Iradoki baizik ez du egiten. Ez du predikatu beharrik ere.

Bide batez, aipu egin behar, nik uste; noizbait, demagun, 2550. nean —Pizkunde Zapuztua- ren milagarren urtemugan—, euskaldunik balego —hala bedi—, erreferentzi puntutzat ere joa izan- go dela liburu hau, gorago aipatu arrazoiengatik, eta bestetik, etor- kizuneko euskaldun horiek adita- sunez arakatuko dutelako ere, nola jokatzen dugun oraingook, egileak gure egitekoaz darabilzkion kezka eta proposamenen aurrean.

‘Espainolak eta Euskaldunak’ (zergatik aukeratu ote du orden horretan) izenburupeko liburuaren irakurketaz, badugu jakiterik —nahi beste argi biderik ematen baitu hartarako—, zeintzu diren arrazoiak Ernazimendua mamitu ez zedin gure artean. Ezinkizun baten kronika zehatza. Eta finki doa Azurmendi gure historiaren zirrikitetan barrena, bere haria pa- zientzia haundiz ehotzen, jantzi eder bat osatu arte. Lastima, hori bai, jantzi eder horretarako soinik ez izatea oraindik.



Gure aukerak

Las Coronas-Ollate

Asteburu honetako ibilbidea Nabaskoitze eta Burgi herrieta-ko dermioen artean dago, Illo-neko mendizerraren iparraldeko muturrean. Bertan oso eguraldi gogorra dago, eta hortik gaur egun gelditzen den parajea. Jatorrizko landaretza pagoak izango ziren, hain segur, eta baita ameztiak ere, baina ustiakuntzak, ez bereziki begirune handikoak, paraje osoa basamortu bihurtu du, ezpel eta antzeko landareekin. Gelditzen diren labore bakanak, magaletan gelditzen den emankortasun urria aprobetxatzen saiatzen dira. Pinudiak, aldiz, zabalak eta onak dira. Bertan oreina eta basurdea ugaria da, eta larretan, erbia.

Ibilbidea Nabaskoitze eta Burgi bitarteko errepidearen 4.900 kilometroan ateratzen da, iturritik. Las Coronas gainean, Hegoekialderuntz hartzen dugu, ardibidetik, eta malda gora, Mellugako atakatik igaroko gara. Ardibidea galdu gabe, Leganotzera helduko gara. Bertan aurki dezakegu historia aurreko zentru garrantzitsua. Izan ere, Leire-Illo zonaldean 13 trikuharri daude, eta horietariko bost ikus-tekoak dira, agerian baitaude. Txikiak dira, oro har, baina Leganotzeko larrean, 15 metrotako



ingurua dago. Ollateko atakan ere beste trikuharri ikus daiteke. Guzti hauek Maluquer De Montes irakasleak aztertu zituen 1955ean, eta bertan aurkitutako material guztiak —harritzko tresnak, keramikak eta hortzak—, Nafarroako Museoa gordetzen dira.

Hortik aurrera, beti Erret Ardibidetik jarraitu behar dugu. Hau da, hain zuzen ere, Bardeak Erronkariarekin lotzen zuena, nahiz eta inguru honetan xendra

makurrak eta galkorrak besterik ez den. Luze gabe, Ollateko atakara helduko gara, eta bertan eskuineruntz ateratzen den bidea hartu beharko dugu. Hortik behera bide nahiko nabarmen egiten da, Artikateko bordetara heldu arte. Hori izango da itzultzeko puntua. Zonalde hau da borda kopururik altuenetakoa duena, nahiz eta gehienak dagoeneko ez diren erabiltzen. Batzuen ondoan oraindik ikusten dira artzainen etxetxoak.

ERAKUSKETAK



Pello Azketa pintorearen erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Munizipalak Garcia Castañon kalean duen aretoan. Datorren maiatzaren 23a arte egonen da zabalik, eta ikusi nahi duenak lan egunetan arratsaldeko 19.30etatik 21.00ak arte eta jai egunetan 12.30etatik 14.00ak arteko orduetan joan behar du.

'Mercados Mayas de Mexico y Guatemala' izeneko erakusketa zabalik dago Tafallako Kultur Etxean, eta datorren maiatzaren 5a arte iraunen du.

ZINEMA



'El principiante' izenburuko pelikula botako dute datorren ostegunean, maiatzak 6, Tafallako Español Zinemaren. Bi saio izanen ditu, bata arratsaldeko 20.00etan eta bestea gaueko 10.30etan.

'El hombre que pudo reinar' izeneko pelikula eskainiko dute gaur arratsaldean Nafarroako Museoaren aretoan. 'Abentura klasikoak' zikloaren barruan dago, aste osoa iraun duena, eta 19,30 etan izanen da.

AHAZTU GABE!

'AZKEN ZIEGARAINO ZUZENEAN' izeneko jaialdi berezia ospatuko da bihar larunbata, maiatzak 1, Leitzako pilotalekuan, gaueko 22.30etatik aurrera. Amnistia-aren Aldeko Komiteak antolatutako, Durangon hasi ondoren hain ohiartzen ona izan duen ikuskizun erraldoi hau ikus eta entzuteko aukera izanen da. Bertan, bertsolari, trikitilari eta kantariak izango dira, elkarrekin ekitaldia osatuz.

Jaialdi honetan, Tapia eta Leturia trikitilariak bere taldearekin, Anje Duhalde kantariak eta Xabier Amuriza, Jon Sarasua, Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariak hartuko dute parte. Beste herrietan gertatu den antzera, Leitzan ere ez da gaijartzaile izango bertso saioan, ez baita berezko saiorik izango. Bere orde, inprobisazioak eta sorpresa ugari egonen dira hiru ordu iraunen duen jaialdian. Sorpresa hauen artean edozein gauza gerta liteke: bertsolari batek trikitixa hartzea, kantari bat bertsotan hastea, eta abar.

Ikuskizun berezi honek hila-bete iraunen du Euskal Herrian, eta Nafarroan Leitzan egingo dena bakarrik ospatuko da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsona ospetsuei elkarrizketak.

'ZOKOBETAILU' Euskalerrira

Irratiko gaurko saioan gauza ugari egonen dira, egunero bezala. Goizeko 10.00etan astelehene ostiralera. Gaurkoan, prentsa irakurketaz gain, Jon Alonso itzultzailearen hitzak entzun ostean, Zizur Nagusiko Ziklo kulturalari buruzko informazioa eskainiko dute, bertako arduradun baten laguntzarekin. Horretaz aparte, musika, asteburuko ekitaldi batzuk, eta antzeko gaiak egonen dira.

ASTEKO PERTSONAIK



Patxi Eugi
Pilotaria

Bikain erakutsi zuen Patxi Eugi pasa den ostiralean pilotaren munduan eragin handia duela, profesional onen antzera, ez baitu partidu bat galdutzat ematen azken tantua egin arte. Eta horrela jokatu lortu zuen Belokiren aurkako norgehiagoka irabaztea. Azkenean, bi tantuko alde atera zion Burlatako pilotariari, partidua irabazteko nahikoa. Orain, Joxean Tolosa gipuzkoarraren aurka neurtu beharko ditu bere indarrak, eta ez du batere erraza izango garaipenik lortzea. Amezketako atzelaria gogoekin aterako baita kantzara. Zurrumurruak ere badaude Eugiren inguruan, partiduen ostean Agoizko pilotaria Asegarcerekin bildu dela esan baitzuen egunkari batek. Eugiren etxean ez zela horrelakorik gertatu erantzun zuten.



Jose Luis Lopez Aranguren
Filosofoa

Iruñean egon da aste honetan Jose Luis Lopez Aranguren filosofoa, NUPek antolatu dituen 'Arrazakeria eta Xenofobia' zikloan parte hartzeko. Mintzaldiaren aurretik kazetariekin bildu zen filosofoa, eta beste gauza batzuen artean, nola ez, datozen hauteskundeetako buruz hitz egin zuen. Berak zionez, aurkezten diren partiduek ez dute botorik merezi. «Ez da komenigarria PSOEek gehiengo absolutoa lortzea, guxtiago ere PPK eskuratzea, eta IU-EB 'ezker bereiztua' iruditzen zait», Lopez Arangurenen hitzetan. Era berean, Europari buruz mintzatu zen. Bere iritziz, «Europa hoberena nazioetako Europa da, zentzu primarioan, eta ez Estatuena. Estatuak Europako batasuna lortzeko oztupo nagusienak dira».



Estitxu Arozena
Bertsolaria

Aste honetako sorpresa handiena, edo handienetakoa, Estitxu Arozena bertsolari gaztearen izena HBko hauteskunde zerrendan ikustea izan da, Senadurako zerrendaren bigarren postuan, Adolfo Araiz parlamentariaren atzetik. Inork ez zuen horrelakorik espero, neskak 18 urte bakarrik baititu, eta orain arte behintzat, ez da oso ezaguna izan alderdi abertzalearen inguruko munduan. Baina hor dago, Madrilera joateko prest. Euskalerrira irratian egin zioten elkarrizketa batean, izendapen honi buruz mintzatu zen gazte lesakarra, oraindik ez dituela gauzak prestatu esanez. «Gainera, azterketak gainean ditut, eta bertso saioak ere egin behar ditut», azaldu zuen Estitxu Arozenak.

MINTZALDIK



'Sexualitatea, nerabetasuna, gaztedia' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du datorren astelehenean, maiatzak 3, Angel Oroz Iruñeko Institutoko irakasleak. Institutoak berak antolatutako aste kulturalaren barruan dago hitzaldia, eta arratsaldeko 19,30etan izanen da, bideo gelan.

Nafarroako Behatoki Klimatikoen Sarea gaur buruz mintzatu da gaur, apirilak 30, Francisco Beltran Andera irakaslea. Nafarroako Ateneoak antolatutako, Nafarroako eguraldiari buruzko hitzaldiak izan dira aste osoan. Arratsaldeko 20.00etan izanen da, Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak duen aretoan.

ANTZERKIA



'La doma de la bravía' izeneko antzezlan eskainiko du gaur, apirilak 30, La Traperia taldeak. Zizur Nagusiko Kultur Etxeak antolatutako, antzerkia gaueko 10.00etan izanen da, Kultur etxean bertan.



HERRIZ BERRI



Nabatz



Eukeni Callejo, bere lan baten aurrean.

Eukeni Callejo Toulousen

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Nabazko (Xulapain) Eukeni Callejo eltzegileak parte hartu du egunotan Frantziako Toulouse hiriko Forum des Cordeliers erakustokian egin den nazioarteko erakusketan, Europako beste herrialdeetako bost eskultore eta pintorekin batera. Erakusketa gaur, ostirala, amaituko da eta Toulouseko Unibertsitatearen Ekimen Artistikoendako Zentroak eta Zen International Erakundeak antolatua da. Halaber, Toulouseko Udalak, Garona Garaiko Kontseilu Nagusiak, Frantziako Hezkuntza Nazionalak eta Kultura Ministerioak ere lagundu dute.

Eukeni Callejok bere azken lanekin hartu du parte erakusketan, itxura eta egitura bitxi askoak. Hormigoi zeramikoetan egindakoak, azken aztarnak nabarmentzen dira azalean, eta baita arrailak, testuak eta mozteko

Eukeni Callejoren lan hauek hormigoi zeramikoaz egindakoak dira, eta anken aztarnak nabarmentzen dira azalean, arrailak, testuak eta mozteko tresnekin egindako ebakiekin batera. Gero, sutan egosten da.

tresnekin egindako ebakiak ere. Pieza hauek gero sutan sartzen dira, eta antzinako baliabideen bidez egosten dira. Horretarako egurra, errautsa, hostoak eta antzeko gaiak erabiltzen ditu artista nabaztarrak. Emaitzak, argazkian ikus daitekeenez, apaintzeko egur zati puxka zahar eta za-

karraren itxura dauka. Erakusketa hau bera Parisen antolatu zen joan den urrian, 'La Bastilla-ko jeinuak' izenarekin, tailerrekin eta arte galeriei zabaldurik egin ziren jardunaldien barruan.

Eukeni Callejo nabaztarrarekin batera, Nin Reve holandarrak hartu du parte hilaren 5ean hasi

zen erakusketan, pintura eta instalakuntzekin, eta beraiekin batera, Frantziako Pierre Machek, eskultura eta instalakuntzekin; Philippe Domergue frantziarrak, gai berarekin; Josep Maria Cabane kataluniarrak, pinturarekin eta Reikai Vendetti frantziarrak, pinturarekin honek ere.

Iruñea

Txantreako jaiak asteburuotan

P.U. / IRUÑEA

Gaur hasiko dira Txantreako jaiak, aste honetan izan den Kultur Astearen ondotik. Sanduzelaikoak jada ahaztuta, Txantrea auzoa saiaturiko da asetzen iruindarren festa-gogoak, udaberriarekin batera, nonbait, piztuak. Gaur 18.00etan, Nagore Anai-Arrebek piztuko dute suziria, jotzen emanaldiarekin. Ondoren, Felix enparantzan Idazlan Lehiaketaren sariak banatuko dira, eta toki berean, 20.00etan, benetako txupinazoa botako dute herriko intsumisoen Asanbladakoek. Bertan ere euskal presoan aldeko brindisa izanen da, eta 21.00etan, toki berean, txistu eta gaita dantzaldia. Txosnen inguruan, ordu berean, Basandreak taldeak lehendabiziko potea jostatuko du. 22.00etan, Auzotegin, zezen-suzkoa izanen da, eta

22.30etan, Maria Auxiliadora kalean, Drindots taldearekin dantzaldia.

Bihar, larunbata, argi-soinuak emango diote hasiera egunari, goizeko 9etan, eta 11etan, umeendako bizikleta lasterketa eta ginkana proba izanen da. Ordu berean aterako da erraldioen konpartsa, eta 11etatik 13.30etara, Euskara Plazan, rockdromoa izanen da. 12etan Iruñea Irubide frontoian herri bazkaria egingo da, eta horretarako txartelak Ziripot, Txorimalo, Sorgiñe eta Auzotegin eros daitezke. 16.00etan Dantzaldia emango du Elurte taldeak Irubideko frontoian, eta 18.00etan, Auzotegin, halterofilia txapelketa: Txantrea-Galdakao. 19.00etan, Eroski enparantzan, Duguna Dantza taldearen emanaldia izango da, eta

20.30etan, Felix enparantzan, txistu eta gaita emanaldia. Ondoren, kalejira izango da, eta Auzotegin, herri afaria. 22.30etan dantzaldia izanen da Maria Auxiliadoran.

Igandean, argi-soinuak eguneroko bezala, eta 11etan erraldioen kontzentrazioa izango da. 12etan kalejira, eta 13etan, Irubide parkean, Ustaritzeko bandak joko du. 14.30etan, Irubide parkean, Kalderete txapelketa, eta 16.30etan, Irubide pilotalekuan, adinekoendako, kafe-kontzertua. 17etan, Eroski enparantzan, Txanogorritxu txotxongiloen lana izango da ikusgai. 18.00etan, Euskara enparantzan, Herri Kirola izango da, eta 19.00etan, Iruñea taldeak emango du dantza jaialdia. 20.00etan, Felix enparantzan, txistu eta gaita dantzaldia. 20.00etan, Auzotegin, zezen-suzkoa izango da.



LEKUNBERRIn dauden goardia zibilen kopurua nabarmen murriztuko dela adierazi du aste honetan Pedro Ruiz de Alegria Espainiako Gobernuaren Ordezkariek. Bere esanetan, lau hilabeteetan 46 goardia zibilak utziko du Lekunberri, eta autobidetako lanen aurretik zeuden 18 bakarrik geldituko dira. Izan ere, kezka eta haserre ugari izan dira Lekunberri ez ezik Larraun eta Leitzaran osoan Goardia Zibilaren presentziagatik, eta istiluak eguneroko oia izan dira autobidetako lanak babestera ekarri zutenetik. Hain zuzen ere, Lekunberriko Kontzejuak duela gutxi onartu du goardia zibilen kontrako idazki bat, horrek turisten etorrera galarazten zuelakoan. Alegriak azaldu duenez, hori esaten dutenak «jokuz kanpo» daude.

LIZARRAko udalak ingurugiro gaiei buruz asesoria sortuko du gutxi barru, eta horretarako eskaerak dagoeneko aurkeztu daitezke bertan. Asesoriak isurkin toxikoak, hondakinak edo jardinei buruzko txosten eta azterketak egin beharko ditu, eta lanaren kontratazioa urtebeterako izango da. Kontua da udalak zer erabilerara emango dien txosten hauei.



TAFALLAko emakumeek azkenean bildu eta elkarte bat sortu behar izan dute bertan sexu orientaziorako zentru bat eraiki dadin. Dagoeneko afera dagoen 22 herrien artean harremana lotu dute, eta bilerak egin dira Tafallan bertan, Mirandan, Beiren, Barasoainen eta Garinoainen. Horrekin batera, talde honek mozio bat aurkeztu du Tafallako udalan, eta gaur bertan eztabaidatuko da, udalek Gobernuaren aurrean egin behar den eskaerari oniritzia eman diezaioten. Txalotzekoa da emakumeen ekimena, baina askara botatzekoa udalek eta gobernuak berak erakutsitako zaboreria.

ATARRABIAko alkatearen kontrako salaketa paratu berri du Nafarroako Animalia eta Landa-reen Elkartek, txakur eta beste animaliei buruz bertan hartutako erabakia dela eta. Alkateak deslaidentitate gabe, edo behar den txertoa eduki gabe zebiltzan txakurrak udaltzaingoa jaso eta egoitzak edukitzeko agindua eman berri du alkateak, eta 72 ordutako epean jaberik agertu ezean hiltzeko. Bertan debekua ezartzen zen edozein txakurra lokal publikoetan sartzeko.

Erreterriako Eskulangintza Azoka zabalduko da gaur, ostirala, 41 artisauren partaidetza-rekin, horietariko 14 nafarrak. Azoka honek merezimendu osoz jaso du urte-tik urtera fama, eta egun Euskal Herrian

Oraindik ere artisauak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

«Nafarroa beti izan da artisauren herrialdea» diote Erreterrian mundu hau hobekien ezagutzen dutenek, eta aurtengo Kopuruei erreparatuz gero, ezin uka. Euskal Herriko eskulangintza azokarik famatuena 41 artisaubilduko ditu gaurtik aurrera Niessen Kultur Zentroan, eta horietariko 14 nafarrak izango dira. Badira horien artean lehendabiziko aldiz parte hartuko dutenak, beren burua ezagutzea eman nahiz, baita hamaika aldiz gonbidatu izandakoak, bizitza osoan eskulangintza landu dutenak ere.

Pello Iraizotz da azokara lehendabiziko aldiz azalduko den horietakoa, eta gainera artisauberrria da. Hargin hau duela lau bat urte hasi zen zizela eta harriarekin, eta Nafarroako Gobernuarekin mandaturen bat dagoeneko lortuta badauka ere lana ez du sobera. Hargintzan «kasualitatez» hasi zela dio, eta egun armariak, hilarriak eta ate gaineko lema egiten ditu. Monumentuak berritzen ere aritu izan da Caceres (Espainia) eta Parma (Italia), talde italiarrek, baina hemen horretarako lanik ez dagoela azaldu du. «Berritzeko gauza asko dago baina enpresen bidez egiten da, eta ez dituzte harginak deitzen. Gainera ingeniari eta aparejadorek ez dute ideiarik euskal hargintzari buruz, eta gauzak berritzean benetako astakeriak egiten dituzte. Ez dute ez sentsibilitate estetikorik, ez kulturalik». Aukeratzeko emango balioke Nafarroako erromantikotik hasiko litzatekeela dio, «zaharrena eta hondatuena delako», eta gero baserrietatik. «Euskal Herrian hargin apartak izan ditugu, eta horren adibideak dira baserriak eta hilarriak: Nafarroak dauka mundu osoko hilarri kopururik handiena».

Nik behin ere ez nuen maite aitzurra» azaldu du 82 urte baina sasoi aparta duen Castora Agesta etxalartarrak, «eta eskolara joaten nintzelarik, beti eskapatzen nintzen».

Sinbologia zaharra ikertu du Iraizotzek, eta gustukoena baserrietan lema paratzea du. «Armarriak ez dauka zentzu handirik gaur egun, abizen askok ez baitu sekulan armaririk izan. Baserri guztiek baina, badute beren izea, eta antzina lema paratzen ziren ate gainean. Tradizio izugarri aberatsa dugu hor, eta ezin diogu muzin egin». Mundu honetan gutxi badarama ere, berrikuntza lanetan egiten diren «astakeriak» salatu eta artisauren lana goripatu du. «Diseinugile batek baino gutxiago kobratzen dut nik; izan ere, soilik lana kobratzen baitut. Artea oparitu egiten dut».

BIZITZA OSOA GALTZERDIEKIN

Iraizotz hasi berria, gogo berria. Castora Agesta etxalartarrari ez zaio gogorik falta, baina hasi, duela 72 urte hasi zen galtzerdiak egiten. Egun Euskal Herriko artisaunik famatuenetakoa da, eta omenaldia egingo diote Erreterrian asetburu honetan, Markos Saraguetza Mezquirizko kuxetagleari bezalaxe. Azken hau da desagertzeaz dagoen lanbide baten azken adibidea. Izan ere, Mezquiriz herri kuxetaglea izan da duela gutxi arte, bertako familietako gizon franko Aezkoara joaten baitzen urtero, epe bil. Horrekin kuxetak, kanibetak eta sardeskak egiten ziren.

«Nik behin ere ez nuen maite aitzurra», azaldu du 82 urte baina sasoi aparta duen Castora Agesta andreak, «eta eskolara joaten nintzelarik, beti eskapatzen nintzen galtzerdiak egiten aritzen zen emakume batengana. Zenbat paliza hartu nituen nik, ez nintzelako garaiz eskolara ailegatzeko!».

Bera da Euskal Herriko herri orotan aspaldian ezinbesteko eta ugariak ziren artisauren adibide garbienetakoa. Beti galtzerdiak egiten, nahiz eta hortik jorjalik ez atera. «Hau ez da hemendik bizitzeko, ez baita jorjalik ateratzen. Bi mila pezeta kobratzen dut pare bakoitza, eta astean bi pare egiteko egunean zortzi ordu baino gehiago aritu behar dut. Hortik atera kontuak». Castorak dena egiten du eskuz. Artilea erosi —«lehen garestia zen, orain ez dakite zer egin eta debalde da»—, etxera eraman, bertan garbitu, haria egin, eta gero galtzerdiak. Oiarzunen (Gipuzkoa)

egiten diren garrantzitsuenetakoa da. Bertara joango diren artisauren artean ere hala ikusten dute, eta aurten Castora Agesta etxalartarrari eta Markos Saraguetza mezquiriztarrari omenaldia egingo diote antolatzaileek.

bizi da gaur egun, baina Etxalar dauka oraindik gogoan. «74 urte nituela atera nintzen Etxalartik, alargundu nintzelarik, oso triste gelditu bainintzen. Hemen ongi nago, alabaren ondoan, baina Etxalarrera joateko modurik baldin badut, ez didate bi aldiz esan behar». Hain zuzen ere, heldu den ekainean omenaldia egingo diote Etxalarren.

ERABILERA ANITZEKO SASKIAK

Agustin Antxordoki igantziarrak ere ez du huts egingo Erreterrian, bere bizitza osoan gaztain zumitzezko saskiak egiten ibili eta gero. Hamar urterekin hasi zen lanean Agustin, etxean bere eskuen beharra zutelako, eta gaur arte, 78rekin. Igantzin badira beste bi horretan arituak, baina lan gutxi dago egun, lehen baino franko gutxiago. «Lehen obrako eta baratza-rako saskiak egiten genituen, eta orain salerosketarako eta aunitz gauzetarako, tiki-tikiak».

Inguruko saskigileek gaztaina erabili dute beti, beste tokietan zumea ohizkoagoa bada ere. «Gaztaina hobe da, sendoa eta fuertea. Zumea hemen ez dugu inoiz erabili ezta urritza ere. Urritza aunitz bihurria da, eta saskiak egiteko behar du zuzena izan». Materiala lantzeko labe batean sartzen dute, eta lurrina eta gaztainaren beraren hezetasunarekin egosi. Lehen baino meheagoak egiten dituzte, nolanahi ere, erabilerak ere desberdinak direlako. Lanbideak aurrera egingo duen segurtasuna dauka Agustinek, baina garaiki asko aldatu direla dio. «Bizitu, gu bizi gara honenkin, baina lehen dena egiten zen saskiekin, eta gaur egun... Orain langileak pagatzeko gehiago kurbatu behar duzu, baita gehiago kobratu ere, baina gero ez bada saltzen... Hala ere, lanbideak segituko du, seguro».

EEBBetara bidaltzen ditugun zahatoek bidea ez baizik latex daukate barruan, horrela whiskeya edo beste edarirekin erabili daitezkeelako». **JUAN JOSE ETXARRI**



WHISKYARENDAKO ZAHATOKAK IRUNEAN

Erreterrian ohizkoak diren artean ohizkoenetakoa Iruñeko Etxarri anaiak ditugu. Izan ere, hau izango da Erreterriara azalduko diren bederatzigarren aldia. Oraingoan aitona Pedro duela 112 urte zahatoak egiten hasi zenetik, familia baitan gelditu da enpresa gaur egun arte eta bolada txarrak pasatu baditu ere, bertan dirau, hiru anaien eskuetan. Aldaketak, baina, izan dira, batez ere makinaren erabilerarekin, Juan Jose Etxarrik azaldu duenez. «Lehen dena egiten zen ahoarekin: bidea sartu ondoren, zahatoa puztu, buelta eman... orain ez dugu ukitzen zahatoa ahoarekin, lan horrek kalte handia egiten baitzion gorputzari, batez ere urdailari».

Materiallean ere aldaketak izan dira, lehen olio edo mostoa edukitzeko erabilitako larruak aprobetxatzen baitziren zahatoak egiteko. Orain larruak ahuntzarekin dira —«behiarenak ez du balio, gogorregia delako, eta ardiarenak gantz gehiegi dauka»—, eta zuzenean heltzen dira zahatogileengana. Duela zenbait urtetako krisia gainditu dutela dio Etxarrik, eta berriro ekin diete esportazioei. Horretarako, ardo ezezik beste edariak ere gordetzeko baliagarriak diren zahatoak egiten dituzte Antsoaingo tailerrean. «EEBBetara eta Hego Amerikara bidaltzen ditugun zahatoek ez dute bidea barruan, latexa baizik, eta horrela whiskeya, kofia edo beste edozein edari gordetzeko erabili daitezke».

Aurten lehendabiziko aldiz joango diren artean, bada arreta piztuko duenik, berria edo bitxia izateagatik. Horietariko bat izango da Antonio Osinaga lizaratarrak, burdinlantz hotzean paratuko duen erakustokiarekin.

Goian, Pello Iraizotz Iruñeko Magda auzoan duen tailerrean, eta eskuinean Castora Agesta etxalartarra eta Agustin Antxordoki igantziarra. Hemen ondoan Juan Jose Etxarri zahatogilea Iruñeko dute enpresan. Laurak izango dira gaurtik aurrera Erreterrian. **JOXE LACALLE/TIPIHTAPA**



Erreterriako eskulangintza azoka, parerik gabekoa

A.B. / IRUNEA

Euskal Herriko herri gehienetan ugaltu dira azken urteotan eskulangintza azokak, eta artisauren lana ezagun eta ohizkoa egin da bazter guztietan. Erreterriakoak, baina, onenen artean famari eutsi dio, eta gaur egun, 15 urteko ibilbidearen ondoren, parerik ez dauka bere gisakoaren artean.

Ereintza Elkarrekin antolatuta, duela 15 urte sortu zen Gipuzkoako herrian, politikatik kanpo elkartearen artean zerbait egiteko nahia nabarmendu zenean. «Demokrazia heldu zenean» azaldu du Josu Izagirre Ereintzako ki-deak, «elkarte guztien artean bildu eta bakoitzak arlo bat landu beharra ikusi genuen, politikaz aparte. Batzuek antzerkiari heldu zioten, besteek dantza edo musikari, eta guk eskulangintzari. Izan ere, Erreterria hiri industrial da, etorkin askorekin, eta euskal kulturaren alor hau erakutsi nahi genion jendeari».

Azoka honen aurretik zenbait erakusketak ere antolatzen ziren, baina Erreterrian egin zen lehendabiziko saioa Euskal Herriko artisaubiltzeko eta beren lan egiteko modua erakusteko.

Hazieran kanpoan, ondoren frankotatik aldatu da lekuz, baina zazpi urtetik hona Niessen kultur zentroan finkatu da. Erakusketak gaur bertan zabalduko da, goizeko 11etan, eta bertan 41 artisaubiltzeko saioa Euskal Herriko artisaubiltzeko eta beren lan egiteko modua erakusteko. Haziaren kanpoan, ondoren frankotatik aldatu da lekuz, baina zazpi urtetik hona Niessen kultur zentroan finkatu da. Erakusketak gaur bertan zabalduko da, goizeko 11etan, eta bertan 41 artisaubiltzeko saioa Euskal Herriko artisaubiltzeko eta beren lan egiteko modua erakusteko.

otargintza; burdina eta metalak; buztina, harria eta beira; oihalak; larrua; soinu tresnak; adarlangintza; itsasontzien modelagintza; marinel eskulangintza; kartoi-harriaren eskulangintza eta elikadura. Halaber, Euskal Herriko zestagintzari buruzko erakusketak berezia izanen da gaur eta maiatzaren 9an bitarte, antzinarako lanbide honetan erabilitako zenbait otar mota, lan tresna eta materialen bidez.

HEMEZORTZI LEHEN ALDIZ Artisaubiltzeko 18 doaz Erreterriara lehendabiziko aldiz. Erakusketaren asmoa izan baita, betidanik, ahalik eta artisaubiltzeko eramatea. «Beti saiatu gara oreka lortzen, jende gaztea ekartzen eta abar, baina beti kalitate baten barruan. Eskulangintzaren barruan zaila da arlo berriak ekartzea, baina estilo ezberdinak ekarri ditugu beti». Badira, nolanahi ere, bere bizitza osoan aritutakoak, eta horietariko hiru omenduko ditu aurten azokak: Marcos Saraguetza mezquiriztarrak, Castora Agesta etxalartarra eta Quiteria Millan erreterriarra.

Nafarroa izango da, aurretik ia urtero gertatu den bezala, ordezkarik gehien izango duen lurraldea, eta hori, Izagirreren ustetan, lurraldean lan hauek egiteko dagoen tradizioarengatik da. «Nafarroan inon bezala gorde dira tradizioak, eta horregatik aukeratzen ditugu Nafarroako artisaubiltzeko. Proporzioaz gehiago direrelako».

Gazteendako Zokoa

Bertsoak

Haur batek askatutako txoriak
kantatutako bertsoak. Bortzirietako bertso Eskola

Aspaldi hontan preso nago ni
hegoak ezin mugituz
askatasuna kaiola hon(e)tan
inork nekez du sentitu
baina zuk ulertu didazu ta
bihotza zaitut hunkitu
nere ustetan etorkizunak
lagun onak egin gaitu

Egunak joan eta etorri
ni beti nengoen triste
zeruan zehar aske dabilzan
txori denetaz aparte
dirudienek hemengo haurrak
oraindik onak zarete
eta zu ongi portatu zera
gaurkoan nerekin gazte

Mari Beltza Unanua



XAKEAN

Nafarroako banakako xake txapelketaren 8. jardunaldiko partida, martxoaren 13an jokaturik. Juan Jesus Mindegia (1.865 ELOkoa) txuriek, Pablo Del Rio (2.150 ELOkoa) beltzekin.

1.e4,e5; 2.Zf3,d6; 3.d4,f5; 4.Ac4,d4; 5.Zg5,Zh6; 6.0-0,Zc6; 7.Gel,f4. Del Rio abantailako peoia itzultzen dio, erregearen segurtasuna bermatzeko. 8. Af4, Df6; 9. Dd2, Ae7; 10.Zf3, Ze5; 11.Ze5, c5; 12. Ag3, Ae6; 13. Ae6, De6; 14. Da5, Zf7. Jokoa ireki egiten da. Txuriek peoiak irabaz ditzakete. Beltzek, ordean, balio handiko espazioak. 15. Dc7, Gc8; 16. Db7, Gc2; 17.Db8 xa, Gc8; 18. Da7,0-0; 19. Da4, Ga8; 20. Db5, EG-b8; 21. Dd5, Dd5; 22.d5. Dama arriskutik at utzi dute txuriek, baina bi peoi arriskutsu geratu zaizkie beltzei erdigunean. 22....., Gb2; 23. f4, Ab4; 24. Gdl,e4. Txuriek Gd4 eginez gero, beltzak Ac5. Bi peoi beltzak pasatuak geratu dira. Txurien damaren peoia, aldiz, etorkizunik gabeko peoia da.

Jenero Xumekoak

Indianoaren blues

Ameriketarik aberatsa etorri, guiskya eta frontoia gehiegi gus-tatu eta zure aitamek nirekin ezkontzera ez zizuten utzi. Big error, big error, oh big error. Zuk ezetz esan, Zaragozara joan, hantxe ezkondu eta orain bi alaba moja ditut, deskaltzaseta-koak. Big hit, big hit, oh big hit. Nirekin ezkontzera, orain beste txori batek kurrukuku egingo lizuke.

JEREMIAS ERRO



Agurearen basoa

AINARA SAINZ DE MURIETA

Behin, bazen herrirka txiki baten ondoan agure baten etxea. Etxe hartan, bera et bere txakurra bizi ziren. Txakurra, mendian gaixorik aurkitu zuen agureak, eta etxera eraman zuen. Bi hilabetez ibili zen txakurra zaintzen. Sendabidea, basoko belarrekin egiten zuen. Gaisorik aurkitu zuenetik, txakurra agurerarekin gelditu zen. Agureak 98 urte zituen eta betidanik etxe berean bizi izan zen. Animalaiek eta landareak maite zituen, horregatik basoan bizi zen. Etxea zaharkiturik zegoen, eta metro batzue-tara errekatxo bat zegoen. Ura garden-gardena jaisten zen, eta agurea, goizetan etxearen kanpoaldean esertzen zen ura nola igaortzen zen ikustera. Etxea baso baten erdian kokaturik zegoen, eta mota guztietako animala eta landare zeuden. Agureak guzti hau maite zuen eta honetaz bizi zen. Basoan ehiza egiten zuen, baina bakarrik behar zuena. Etxearen ondoan berak landutako barazkiak zituen eta ia egun osoan mendian zehar ibiltzen zen

txakurrarekin.

Egun batean oso goiz jeiki zen mendian egun guztian zehar ego-teko asmoz. Jatekoa hartu eta txakurrarekin basoan barne abiatu zen, gogoratzen ez zuen zuahitzik gabeko alderdi batetik. Hala eta guztiz ere, memoria gutxitzen zioakiola pentsatu zuen eta ez zion garrantzi handirik eman. Jateko zerbait poltsatik atera zuen eta txakurrarekin baturatu zuen. Atsedena hartu eta gero, berri abiatu ziren. Oraingoan mendiz bestaldera abiatu ziren. Ibiltzen ari zirenean bapatean beren inguruan zuhaitzik gabe gelditu ziren. Hurrengo egunean agurea herrira jaitsi zen eta den-dako langileari gertatzen ari zena naz galdetu zion. Honek zuhaitzak papera egiteko eta suan erabiltzeko moztzen ari zirela azaldu zion.

Agurea langileengana joan zen eta gertatzen ari zenaren zergatiak galdetu zion eta hauek nagusiarengana eraman zuten. Nagusiak esan zion mendia ez zela berarena eta beraiek baimena zutela zuhaitzak mozteko. Agu-

rea haserre bizian bere etxera bueltatu zen. Gau osoan basoan pentsatzen igaro zuen. Agurea, hurrengo egunean hirira abiatu zen. Han proiektuaren egilearekin hitz egin zuen esanez basoa desagiten bazen animala eta landare guztiak desagertuko zirela, eta hori herriko jendearendako eta berarentzako oso kaltegarria izango zela. Hala ere, proiektuaren egileak ez zion jaramonik egin. Hamar egun pasa zituen proiektuaren egilearen eraikinean jan eta edan gabe. Gaisotu egin zen bainan basoa salbatzearen tinko eutsi zion bere ideari. Egoera ikusiaz, proiektuaren egileak alternatibak aztertu zituen eta agurearekin akordio batera iritsi zen. Agurea oso gaixorik ingesatu zuten baina alferrik izan zen, agurea zaharregia eta nekatuegia zegoen, eta hil egin zen. Txakurra hil egin zen eta biak berarekin etxe ondoan eta basoan lurperatu zituzten.

Esaten da eta herriko jendeak kontatzen du, gauez basora joaten bazara, agurea eta txakurra-
ren zaunka entzungo duzula.

KAZKARROAN

D E B F A L L I B N U S
A O H O G A J D A I D E
J E N M U R R O T Z A G
E G I A L E B G A G L F
H B A F M I O H A K E B
I U E K T A D I S O I A
T N U T D A R E H I A T
U B I E Z R Z I F T O E
R F A Z O E J E A Z K I
E X G G E O N L H I A B
N E L E A I F O B U D U
A E P I B M D E D G A Z

LETRA
ZOPA

Aurkitzazu letra zopa honetan Malerreka-ko harana osatzen duten 8 herrien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

N-70



Belagua (I)

Toponimia kontuetan izan da euskaldunen artean konpleju arbuia-garri bat, eta gaurko izena adibide garbia da, ezin izkutuzko konpleju baten sintoma baita Belagua eta Belagoaren arteko eztabaida antzua. Zein ote euskaldunago? Azken hogeitaz urte honetako datuak eskuetan, du-darik ez egin, Belagoak darama irabazlearen ikurriña eta Belagua ziztriña berriaz erreakzio-narioen orrialdetan errefujiatu behar da. Egoera hau ulertzeko joan gaitezen 1968an argitaratu zen 'Erronkariko Uskara' gramatika erreparatzera, hor Belagua ikusiko baitugu. Gramatika horren ikasle abentajaturen batek Alta Ruta delakoari Alta Ruta de Belagoa deitu zion, hogeitabi urtez segidan egin dena, eta, agian hemendik abiatuta, Belagoak pixkanaka pixkanaka zaletuak irabazi zituen azkenean Euskaltzaindiak 'Euskal herriko Mendien Katalogoan' onartu arte. Nafarroako Gobernu-ko itzultzaileek ere Belagoa euskalduntzat hartu dute. Hogeitaz urteko karrera honetan irabazle loriatsua suertatu ondoren hona hemen positiboa ematen duela doping kontrolean. Epailen nagusiak berak, Euskaltzaindiak, erramu koroa kendu dio. Baina zerk eraman gaitu egoera honetara? Benetan al da Belagua forma erdalduna?

Azal azaletik begiratuta batek beleak eta belarrak ikus litzake izen honen jatorrian; baina sakonduko balu izenaren erroetan beleak hegaz ihes egiten liokete eta belarra ez luke horren berde ikusiko. Beleak, tamalez, Erronkarin erroiak ziren eta ezin beltzago ikusten dugu azalpen hau. Belarrak joku gehiago ematen du. Ez al da Belagua Erronkariko belartoririk joriena eta zabalena? Gainera badakigu hitz konposaketan -r hori erori ohi dela beste kontsonante baten aurrean eta badakigu gero ere Erronkarin -gu atzizkia bizi bizirik zegoela tokiaren esanahiarekin. Biltzeko tokia bilgua zen, jatekoa xangua, alatzekoa alagua.... Gainera Aezkoan Beragua ere badugu eta jakin badakigu belarra ere berarra izan daitekeela. Belar+gu(a) Belagua. Baina arazoa hemen heldu da. -Gu atzizkia aditzei lotua azaltzen da beti gorago ikusitako adibideetan bezala eta belarra, zoritarrez, ez da aditza. Kasualitate haundiegia izanen zen salbuespen bakarra gure izena izatea.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

Eguesibarreko hego-mendebaldean, Mendillorri hain zuzen ere, makro-urbanizaioa eraikitzen ari da Nafarroako Gobernua. Bertan eta inguruko beste urbanizazioetan 17.000 lagun biziko dira gutxi barru, baina haiek ezarriko

duten bizimodu hiritarra ez dute gogoko egungo eguestarrek. Udalaren mandatuz eginiko inkestan 1.147 eguestarren % 61,7 Mendillorri bailaratik banantzearen alde ageri dira, Iruñetik ihes egitearen alde, alegia.

Eguesibar, Iruñetik ihesi

JUAN KRUIZ LAKASTA / EGUES


Mendillorri, Gorraitz, Altzuza II eta Olatz Txipiko urbanizazioen eraikuntza amaitzen duen 18.000 lagun inguru biziko dira Eguesibarren, egun baino 17.000 gehiago hain zuzen ere. Hazkunde basati horrek kolokan jarriko du egungo populazioaren geroa, eta batez ere, komunitate horren nortasunaren iraupena; izan ere, bailarako 1.147 biztanleek ez dute inolako pisu ekonomiko edo politikorik izanen bailarak 18.000 biztanle izanen dituen. Eguesibarren izate lasaia kolokan dago beraz, baita ere hiriarekin zerikusirik ez duen eguestarren bizimodua. Nortasun horri eutsi ahal izateko Udalak bailarako egungo biztanleen behar sozio-kulturalak aztertze-ko eskatu zion Taller Sociológico elkarteari. Elkarte horrek ikerketa horren emaitzak asteartean plazaratu zituen Udaleko sotoan bailarako biztanle aunitzen aurrean.

Taller Sociologicok egindako inkestaren arabera, Eguesibarreko biztanle gehienek komunitatearen iraupena bermatzen duen irtenbide bakarra Mendillorri Eguesibarretik banantzea dela uste dute. Inkestan biztanleen % 32,1 Mendillorri bailaratik banandutako udala izatearen alde ageri dira, % 29,6 Mendillorri Iruñeko auzo bilakatzearen alde, % 17,6 besterik ez Mendillorri bailara barnean jarraitzearen alde, eta % 20,8k ez dute erantzun, edo berdin zaie. Hau da, bailarako egungo biztanleen % 61,7 Mendillorri bailaratik bereiztearen alde dago, eta hori gutxi baltz, Udaleko zinegotzi guztiak irtenbide horren alde daude. Nafarroako Gobernuak ez du hau kontuan hartu Mendillorri bailaratik bananduko duenentz aztertzerakoan, eta Iruñeko Udalaren egin dituen egin beharreko negozio guztiak. Badirudi, baina, eta eguestarren pozerako, Mendillorri Iruñeko auzo bilakatuko dela gutxi barru.

ASPALDIKO ETA EGUNGO HIRITAR MEHATXUA

Hau ez da eguestarrek horrelako erronka bati aurre egiten dioten lehen aldia; izan ere, 1970ean Burlatak Mendillorri hastear daukan bidea egin baitzuen. 1900. urtean 1.715 lagun bizi ziren bailaran, eta horietatik 280 bailarako Udalaren barnean zegoen Burlatan. Burlatako biztanle kopuruak ordutik aurrera

MENDILLORRI BURUZKO IRITZIA EGUESIBARREN



Mendillorriren kontrako jarrera dago bailaran.

J. LACALLE

mardultze bidea hartu zuen, eta ibarra osatzen duten gainontzeko herrienak, berriz, murriztearena. 60ko hamarkadaren amaieran 3.560 ziren burlatarrak eta gainontzeko 970ak eguestarrak. Orduan, egun bezala, hiria hedatzeko arriskuan egon zen Eguesibar, eta egun hartu duen irtenbide bera hartu zuen garai hartan, hiri eremua bailaratik banantzea hain zuzen ere. 1970etik aurrera bere udal propioa izan du Burlatak.

Hiriaren hedapena ordea,

saihestezina da, eta badirudi bailarako bi herrien banantzea ez dela aski izanen Iruñearen hedatze nahia asetzeko. Burlata lehena izan zen, Mendillorri bigarrena izanen da eta Sarriguren izan daiteke hirugarrena, Nafarroako Gobernua baita Sarrigurengo lurren jabea. Mendillorri urbanizazioaren hedapenerako irtenbide ezin hobea ematen du Sarrigurenek. Iruñeko auzoa izanen den urbanizazioaren ondoan, iparraldean kokatua.

«Bailara defendituko dugu»

J.K.L. / IRUNEA

Ines Martinez Eguesibarreko alkatesa, haraneko gainontzeko biztanle gehienak bezala, bailararen izakera babesteko gogor borrokatzeko prest dago. «Gauza guztien gainetik gure bailara defendituko dugu», horixe da elkarriketaren amaieran dioena. Taller Sociológico elkarteari eskatutako ikerketaren helburu nagusia bakarra zen, eguestarrek Mendillorritik bereizteari buruz uste dutena jakitea. «Jendearekin hitz egiterakoan sumatzen zenuen guztiak banantzearen alde zeudela, baina ez zen gauza ziurra, eta erreferenduma egiteko aukera ere aztertu genuen, hori oso garrantzitsua baitzen Udalarentzat. Azkenean guztiok espero genuena ateratu da inkestan. Mendillorritik banantzearen aldeko jarrera».

Gerora begira, alkatesak ongi daki Iruñearen beste 'eraso' batzuei aurre egin beharko diela Eguesibarrek. Mendillorritik bereiztea behin-behineko irtenbidea besterik ez da izanen. «Gorraitzen 1.300 etxebizitza eraikiko dituzte, Altzuzako bigarren

urbanizazioan 130, Olatz Txipian 43, eta ezin da ahaztu Sarrigurengo zolua, Nafarroako Gobernuarena baita, eta oraindik ez baitago argi zer egingen duen horrekin».

Berriro ere aurre egiten saiatuko dira, baina txikiak direnez «ahulak» direla azpimarratu du alkatesak. «Gure arauak finkatuko ditugu orain eraikuntzei dagokienez, baina kontuan izanen dutenentz ez dago argi». Hori esateko arestian gertatutakoan oinarritzen da Martinez alkatesa. «Mendillorriko urbanizazioaren plangintza prestatzerakoan ez gintuzten kontuan hartu, eta gauza bera gerta daiteke berriro ere». Hori dela eta, Burlatak eta Mendillorri hartu zuten bidea beste herri batzuek har dezaketela uste du Martinezek. «Gerta daiteke Sarriguren ere Eguesibarretik banantzea. Gure bailarako Udalak gero eta txikiagoa izateko arriskuan dauka. Gure geroa zein izanen den ez dakit». Hala ere, agurtzerakoan, bailarak amore emateko asmorik ez duela gogorarazi du. «Gauza guztien gainetik gure bailara defendituko dugu».



Herri honetan ez da aspaldi-aspaldian euskaldunik izan». Horixe bota zidan Espartzako apez jaunak herri horretan zertan ari ote nintzen galdetu eta euskaldunekin solas egitera bertaratua nintzela erantzun ondoren. Badaezpada ere, eskua zorroan sartu nuen ikusteko hantxe ote zen zarai-

tzueraz betetako zinta. Izan ere, bukatu berria nuen Dionisia Garate espartzarrarekin, euskaraz, izandako solasaldia. Dionisia Garate Otxoa emaztekoa zendu berria da, 89 urtetan. Hona hemen duela lau urte egindako elkarrizketa, zaraitzueraren erakusgarri.

«Oihaneala faten gintzan lan egitra»

E.D. DE ULTZURRUN / IRUÑA

GALDERA.— Ta lehenagoko bizi-modua, oihanean lanean edo... beti oihanean lanean?

ERANTZUNA.— Bai, oihaneala bai, faten gintzan, oihaneala.

G.— Oinez?

E.— Bai, bai, zangoen gañean, ez ginuen deus ere fateko, baizik ere zangoak, oihaneala, lan egitra kan, behiekin, beste lanik ez ginuen, enuen egiten baizik ere, behiak segi, oihanean, eun guziko, askaria hartu goizian, artsal'artio faten gintzan oihaneala behiekin, ez gintzan xausten arts'artio, eun guzia oihanean, egiten bazuen euri, euri, egiten bazuen elur, elur kan bar zen egon.

G.— Denpra gaixtoarekin ere?

E.— Bai, bai, bai, halik eta neguan sartu artio denbra gaixtoan, egun oro faten gintzan oihaneala behiekin.

G.— Eta han bordala edo...

E.— Keen bai bordala, bordala. Ta bordala faten gintzan asteleanean, eta ez gintzan xausten halik eta larunbateala artio, aste guzia kan bordan, behiekin, ermaten ginuen ya astelenean, erkaituak, eta aste guzian kan, larunbatean xauntsi, igandea igare etxean, astelenean nik ogiak egin bihar, ogiak egin eta oaiñik artsian mandoan eseri ogiak eta fan bordala, eta banuen bi oron bide bordala fateko, hobeengan faten nintzan keendik ilunian e, eta bi oren bide, ehl, kan egoten zen aita, ta ama, eta nik, lenbiziko bi semeak ere bai, kan eun guzia, aste guzia kan, geldi-geldiak, baia ni ebiltzen nintzan goiti ta apal errekaitsu bila.

G.— Eta nola egiten ziren ogiak?

E.— Etxean, baginuen labea, baginuen gauza guziak, eta ogiak egin ta, bai, bai artsean ogiekin bordala.

G.— Eta kilo aunitz edo guti, ogia?

E.— A! pues, egiten nituen hama-bi hamahirur ogi, eta izaten zien, orduan etzen kilorik baizik ere librak, bedratzi eta hamar libra ogi bakotxa, ta egiten nituen, pues, hamabi, hamahirutra etzen heltzen, hamabitan. Egiten nuen orea, eta gero kala bueltaka bueltaka sartzen nuen ogia labean, ta bihar zen egon hirur orones, ogiak labean, labetik elki zaku batiala, ta zakuan ogiekin bordala.

G.— Eta zamarijkoan iganik bordala?

E.— Ah, bai, zamariarekin, zamari ez, mando ginuen, ene denbran beti izan ginuen mando, behiak eta ahuntzak eta ardi eta guzietarik izan ginuen, guzietarik.

G.— Eta aita faten zen Erribrara ardi saldoekin?

E.— Bai, bai.

G.— Zu fan zra ere Erribrara?

E.— Ez, ni Erribrala ez nintzan fan batere, kortik libratu nintzan Erribrala fan bage.

G.— Eta aita zer erraten zuen?

E.— Pues deuse, aita urte gutis izan ze, izan ze ene senarra, faten zena artzai, aita ez, aita ya zen delikatu, beti zegon eri, delikatu, baia ene senarra faten zen sei edo zazpi hilabeterendako Erribrala, eta ni kemen berzeekin, lenbiziko urteetan bi semerekin baratzen nintzan, ta aita t'ama, eta senarra Erribran.

G.— Eta non barna faten zren Erribrara?

E.— Oh, urrun, urrun faten ze, bai, bai anitz urrun.

G.— Eta zenbat ardi saldorekin, zenbat ardirekin?

E.— Ez, pues, eztut erranen zenbat, zer saldo ermaten zuen, lauregun edo kala, edo borzegun edo kala, ermaten zuen.

G.— Artzai?

E.— Artzai, artzai, eta erraten



Zaraitzueraren erara jantzita. Eskuinekoa da Dionisia.

zuena berak, eta kueba batean lo egiten, eta behar baldin bazien xan, fan behar zien herri batiala gabaz, egunaz zaldiekin, eta artsian errekeituen bila faten zen herrial, ta gandik faten zen gero kueba batiala, kueban erraten zuen, kueban, hobeengan euri egiten zuelarik ituxurak gaiñala.

G.— Orduan lo egin bage?

E.— Ah, lo egiten zien egunaz, iguzkiarekin, artsian ez, igaretzen zen lorik in bage.

G.— Orduan sei zazpi hilabeten-dako.

E.— Bai, bai, bai faten ze.

G.— Baina, negua pasatzera?

E.— Bai, bai negu guzia kan, halik eta martxoaren azkenial'artio etzen xiten.

G.— Eta dirua atratzen zuen?

E.— Bah, hamar durorendako faten zen hilabetian, hamar duro irabazten zue, ez yago eta ez gutiago, hamar duro.

G.— Eta diru korrekian gauza anitz erosten ahal zen edo guti?

E.— Ah, bai, bai, baratzen gintzan ongi, bai, bai, orduan baitzauden gauzak kariak kala, erosteko, ez orai bezala, ez.

G.— Orai kario?

E.— Orduan guti eta orai sobra.

G.— Orduan zuk egin duzu lana oihanean, borda, eta etxean ere, etxeko lanak?

E.— Bai, guziak egiten nuen, bordatik xauntsi eta erkaituak, ala! bila tiendala, ardo bila, guzietan faten nintzan, eta gero ala! mandoa kargatu ta bordala, zonbat biaje dauket eginik, bai ze bizia, ez gaude igual ez, orduan ta orai, ez gaude igual.

G.— Eta oraiko gazteak hobe bizi dra?

E.— Bah, sobra ongi oraikoak, sobra ongi.

G.— Eta, zera, lehen nork egiten zuen lan handiago, gizonak edo emakumeak?

E.— Emaztiekin, emaztiekin egiten ginuen lan yago, nik udan xiten zelarik gariak egitatzeke, nik egitatzten nuen gizonak biño yago, izan nuen maiña anitz egitatzeke.

G.— Orduan udan garia igitatu?

E.— Bai, bai, egitaz, egitaiaz.

G.— Eta gero gari horrekin zer egiten zen?

E.— Ah, pues, gari kura larrian eultziak, eta egiten ginuen eultzia, pues, behiekin, bi behi xuntatu buztarriaz eta ala! eultziala, gero faten gintzan bukatuz, bukatuz, ala! bazterrial, ala! erdiala, erdiala! ta kala xardukitzen ginue.

G.— Eta eultzitu eta gero haizearekin edo...

E.— Bai, bai, bai, sardiaz haizatzen ginuen, eta garia palaz, agotza sardiaz ta garia palaz, zer moduak e? orduan, zer moduak!, eta orai ezta igual, ez, ez, orai ezta ez ogirik egiten ta deus ere, orai guziek eragutzen die ogia atariala, ze behar die emazte kebek, ezte ikasi ni bezala ez, ni bezala ez, etxekoande konek eztu ez ogirik egin, ya konen denbran etzen egiten ogirik, baia nik bai in ditut anitz.

NOSKI
JATOR

ZVLDI ERDA



1. ¿Bere ikasleak izkuntza ez dakian irakasleak zer irakatsi dezake? Ezer gutxi. Ori gertatzen zaigu Euskalefiko efi askotan.

2. Estatutoarekin ordea irakasle euskaldunak izango ditugu ta nekamutiko euskaldunak orain alako bi ikasiko dute.

